



TOKIKOM

Hazia ereiten, hezi

Ortuari buruzko tailer gizahezitzailea





EROSI DUZU ASTO-KAKA JOKOAREN TXARTELIK?

3 euro baino ez duzu ordaindu behar,
eta 2.000 euro jaso ditzakezu
bueltan! Eta, gainera,
BARRENi lagunduko diozu!

TXARTELAK SALGAI:

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean,
BARREN astekarian, Elgoibarko
okindegietan eta Mendaroko
Aitz-beltz tabernan

TELEFONOA:

943 741 626 (Amaia edo Nerea)

E-POSTA:

administrazioa@elgoibarkoizarra.com

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

<http://elgoibarkoizarra.com/astokaka>



Urriak 14 eta 15,
Plaza Txikia-Leku Eder.

Danok irabaziko dogu **BARREN!**



Noemi
Otegi

Gaur ezusteko zoragarri bat eduki dut sare sozial bati esker! Ez dut aspaldiko ezagun bat aurkitu, ezta lagun

berriak ere! Nire lehengusu batek 1978ko bideo bat partekatu du lehengusu guztion artean: nire aitona-amonaren ezkontzaren 50. urteurreneko ospakizuneko irudi xume batzuk, pare bat minutu, non bat-batean Otegi sendia osorik ikusteko aukera izan dudan; jada gure artean ez ditugunak, gure artean daudenak, baina orduan umeak zirenak... Aitak hain berezkoa duen keinu batek hunkitu nau; eskuak elkar helduz, berotu nahian balego bezala. Oso berea du keinu hori, baina bat-batean mugimenduan ikusi ahal izan dut.

“Gaur ume direnek beren bizitzako pasarte asko izango dituzte iruditan”

Ziurrenik gaur ume direnek beren bizitzako pasarte asko izango dituzte iruditan; hamaika bideo: lehen pausoak eman zituztenekoak, lehen frutak jan zituztenekoak... Mila irudi ordenagailuan ikusteko aukera dute, baina ez dakit sekula nire alabak bere bideo bat ikustean, ni gaur bezain hunkituta sentituko ote den. Gehiegi edukitzearen ordainetako bat izango da hori. Ez da sekula ni bezain pozik sentituko bere sendi osoaren bideo bat ikusiz, hamaika irudi izango dituelako eta hainbeste izanaren ondorioz aspertu ere egingo delako horiek ikusteaz. Gauza gehiegi dauzkate gure umeek, beti jakin izan dut hori ez dela ona, baina gaur hori jakiteaz gain, pena ere sentitu dut alabak hainbeste daukalako, eta horrek ziurrenik ez diolako emango, nik gaur sentitu dudana tamainako pozik.



Ainara
Sedano

Goxoa bideoa! 78ko irudi biziak ez dira eguneroko ikusten! Arropen luzerak eta itxurak, ile orrazkerak... Eta zure erreflexioari buruz, Noe, bat nator zurekin ikus-entzunaren munduari dagokionean. Azken urteetan denentzat da eskuragarri argazki edo bideo kamera bat eta badirudi behin horietako bat eskuartean dugunean ezin diogula argazkiak ateratzeari utzi! Nola liteke hamabost eguneko oporraldi batean mila argazki edo gehiago ateratzea? Oroimenean eta begi-ninietan ere zerbait gorde beharko dugu, ba!

Egia da, Noe, ia bere bizitzako egun bakoitzeko argazki bat izango duela zure eta beste edonoren seme edo alabak. Beraz, lan gorragea orain gurasoentzat, urteetan atzera egin eta argazkirik gabeko istorio politak errekuperatzen; eta guk (eskerrak!) oraindik badauzkagu batzuk. Ni haurra nintzenean ez zegoen hain hedatua argazki kamera bat etxean edukitzeko joera, eta irudi gutxi ditut txikitakoak. Nire amak, oster, badu ertz puntadun eta tamaina txikiko argazki bildumatxo bat; amonak txokolate tabletekin ematen zituzten puntuak batu eta garai hartan lortutako argazki kamerarekin ateratakoak. Hori bai apartekoa!

“Oroimenean eta begi-ninietan ere zerbait gorde beharko dugu”

Hala ere, irudirik gabeko istorioek ere badute beraien xarma, norberak irudimenarekin marraztutakoa. Nire birraitonak erleak zituela eta haien ezitia jasotzen zuela jakin dut duela gutxi. Argazkirik ez daukat baina polita egin zait nere ama eta izeba-osaba koxkorak aitona ezti baldean behatzak sartzen imajinatzea. Ez dut argazkirik behar, baina gustura ikusiko nituzke.





ESKERTZA

MANUEL CRIADO SANCHEZ

2011ko uztailaren 26an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ORTUAK EMAN DU BEREA



Irailaren 29an bukatuko da Sartu federazioak apirilean martxan jarritako Baratzaren Tailer Gizahezitzailea. Zabalzen-en bidez, Elgoibarko, Debako eta Mutrikuko Udalek antolatu dute sei hilabete iraun dituen ikastaroa eta hama-bi lagunek hartu dute parte. Horietatik sei dira elgoibartarrak; eta hiruna, debarrak eta mutrikuarrak. Guztien artean, hiru, etorkinak. Baratza lantzen ez ezik, egunerokoan beharko dituzten makina bat lezio ere ikasi dituzte sei hilabeteotan tailerreko ikasleek eta denak ere, hezitzaile zein ikasle, gustura daude jasotako emaitzarekin.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Aldagelara sartu dira, emakumeak lehenengo eta gizonak gero. Kaleko jantzita sartu eta buzoak soinean ditzutela irten dira aldagelatik. Eskularruetan ezkutatu eskuak, boligrafoa eta koadernotxoak poltsikoan gorde, eta prest daude ikasleak. Dagoeneko tamaina hartua diote tailerrari; baita baratzari ere. Sei hilabete daramatzate elkarrekin; ortua lantzen ikasi dute denbora horretan, baina izan dute bestelakoe-tarako astirik ere. Ana Urkidi egitasmoko hezitzaileak azaldu moduan, proiektuak bi

Bakoitzak bere neurrian, denek hobetu dute sei hilabeteotan

alde landu nahi izan ditu: gaitasun teknikoak batetik, eta oinarrikoak bestetik. Hau da, jakintza tekniko modura, ortuaren non-

dik norakoak ikasteko aukera eskaini zaie ikasleei; baina era berean, edozein lanetarako baliagarriak eta nahitaezkoak diren diziplina edo talde lanean jarduteko gaitasuna moduko gaitasunak ere jaso dituzte, oinarri modura. Elgoibarko institutuan kokatu dute ikastaroaren alde tekniko eskaintzeko lekua. Bertan bi negutegi izan dituzte; lehenengoa ikasle eta arduradunen artean jarritakoa, eta bigarrena institutuak lagatakoa. Baratzak garaian garaikoa ematen duela gauza jakina da, eta horrela gertatu da oraingoan ere.



Landutakoaren arabera erantzun die ortuak, ondo erantzun ere; saiatu ere, halaxe saiatu dira eta. Gustura jardun dute denbora honetan eta orain ere, erremintak eskuetan hartzearekin batera antzematen zaie berdin diharduela. Azken egunak dira baina. Irailaren 29an agurtu beharko dute elkar; ordurako lurak emandakoak jasota izan beharko dituzte, eta erretiratura beraien lantoki izan duten negutegia. Partehartzaileetako batzuei motz geratu zaie tailerra eta Mutrikutik egunero datorren lagunak adibidez, apirillean baino, tailerrak martxoan hasi behar zuela esan du ozen.

Langabeziak bultzatuta

Hamabi ikasle horietako bakoitza, arrazoi desberdin batek tiratuta iritsi da tailerrera baina guztiek badute egoera bat ezagun: langabezia. Egitasmoan parte hartzen duten guztiak daude lan faltan une honetan eta hori horrela, norberak bere udalerriko gizarte zerbitzuen bitartez, dagokien laguntza jasotzeak bilakatu ditu ikastaro honetako ikasle. Denak ere bazterketa arriskuan daude eta hortaz, baratzeko lanetan trebatzeaz gain, edozein lanetarako prestatzea eta gizarte bazterketa horri freno jarzea ere badira ikastaroaren helburuak. Era berean, erabiltzaile bakoitzaren arlo pertsonalari begira ere egiten dute lan, ikasleen autoestimua eta garapen pertsonala hobetu nahian. Baita arlo laboralean, eta gizarte eta talde arloetan. Esparru guzti horietan, gainera, emaitza onak izan direla azpimarratu dute egitasmoaren arduradunek. Partehartzaile bakoitzak bere tamainan,

baina denek eman dituzte aurrera-pausoak. Esate baterako, talde lanean aritzeko gaitasun ugari barneratu dituzte apiriletik gaur arte eta diziplinari dagokionean, puntualitateari edo errespetuari begira, aldaketa nabarmenak somatu dituzte hezitzaileek.

Krisiaren eraginak

Proiektu honek lehenago ere eman zituen bere fruituak baina egoera ekonomikoak egitasmoa handitu beharrean txikitzea ekarri du. Garai batean Mendaroko Udalak ere hartu izan zuen parte egitasmo honetan eta lantzen ziren gaiei dagokienean, tailerra, ez zen soilik baratzaren nondik norakoetan oinarritu. Brikolajea ere lantzen zen aurten arte ikastaroan; oraingoan ordea, baratza baino ezin izan dute landu, gehiagorako dirurik ez zegoelako.

Dirua baita horrelako proiektuen mugarik nagusia. Beharren eta aukeren arteko balantzan mugitzen dira egitasmoak, eta Sartu federazioak aurrera daraman tailer hau ere, ez da salbuespena. Arduradunei galdetuz gero, argi daukate egitasmo honetan parte hartzen diharduten hamabi pertsona horien aldean, beste asko ere badaudela egoera berdin edo antzerakotan baina diruaren eta krisiaren oztupoak mugatzen du proiektua gehiago haztea.

Aurrera haziak eraiten

Pasa dira sei hilabeteak eta esan bezala, laster da tailerraren azken eguna. Alabaina, hamabi pertsona hauen egitekoak ez dira hemen bukatu. Bakoitzak bere bideari jarraitu beharko dio. Batzuek lanerako prest daudela baloratu dute hezitzaileek eta hala egingo dute lan mundura salto. Etorri berri diren bi etorkinek Caritasek antolatutako gaztelania ikastaro bat hasiko dute hementik gutxira. Horrela, bakoitzak

SARTU-REN LOKALAREN INAUGURAZIOA

Lantoki berria dauka aipagai dugun federazioak eta horren inaugurazioaren harira, "Sozialki arduratsuak diren lurraldeak" izeneko jardunaldia antolatu du hilaren 30erako. Arregitorre kaleko seigarrenean daukate egoitza berria eta bertan izango da jardunaldia. Goizeko 09:00etan alkatearen eta gizarte diputatuaren hitzekin emango zaio hasiera saioari, eta ostean Carlos Askunzek, Reas-Euskadiko gerenteak, eta Maria Alba Espargarók, GAK gaitan aholkulariak, parte hartuko duten mahai-ingurua egongo da.

bere neurriko emaitzak jaso ditu; ereindakoaren fruitu. Oraindik badute zer irauli; ortua erretiratuko dute, baina bakoitzak berean, jarraituko dute bidea lantzen.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel
Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irueta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



EL GOBIERNO VASCO



MENDIAROKO UDALA



ANE, ANE ET ALIENAK



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Arauk, zertarako?

2010eko urtarilean eta otsailean gazteen lokalen erabilerrari buruzko partaidetza foroak egin ziren. Urte honen hasieran, bestalde, Udalak gazteen lokalen erabilerrari buruzko araudia onartu zuen, lokal horien gutxieneko garbitasuna bermatzeko eta lokalen erabilerrarekin bizilagunei trabarik ez eragiteko. Udalak ekainaren 30era arteko epea jarri zuen lokalak eta erabiltzaileak araudi berri horretara moldatzeko.

Bestelakoan artean, ondorengoak jasotzen ditu araudiak:

- Bizileku-erakin bakoitzeko gazteen bilgune bakarra egon daiteke (4-3 artikulua).
- Ezingo da aulkirik, mahairik edo bestelakorik jarri eremu publikoan, eta lokalaren kanpoaldean ezingo da jende multzorik bildu (15-1 artikulua).
- 22:00etatik 8:00etara motoen edo autoen motor hotsak eta oihiak ekidin behar dira (15-1 artikulua).
- Bilgunearen kanpoaldea garbi mantendu behar da, eta ezingo dira zaborrak edo objektuak bilgunearen kanpoan laga (15-1 artikulua).

Epe horretatik bi hilabete pasatu diren honetan, San Roke 28an, ni bizi naizen lekuan, alegia, gazteentzako lau lokal daude.

Bestalde, lokal horietatik gertu dauden garajeetako presidentea naiz, eta nire azalean bizi ditut lokal horietako erabiltzaileek eragiten dituzten kalteak. Egia da gazte guztiak ez daukatela jarrera bera, baina ondorengoak pairatzen ditugu: zaratak, zikinkeria (plastikoak botilak, latak, jateko hondakinak...) baloi-jokoak garajerako sarreran eta horren ondorioz norbait harrapatzeko arriskua (baloiarekin jolasteko lekurik egokiena ez dela behin eta berriz esan diegun arren, ez dute jaramonik egiten). Gainera, bero egiten duen egunean aulkia ateratzen dituzte kanpora, lokalak oraindik araudi berrira egokitu gabe daudenez, barruan bero egiten duelako, izan ere, lokalak ez dute aireztapen neurria betetzen.

Hiru bilera egin ditut Gazteria Saileko arduradunarekin eta azaldu dizkiot, nire usteetan, gazteentzako hainbeste lokal egoteak eragiten dituen arazoak eta horietako zenbait

gazterekin izan ditudan haserreak. Azkenik, araudia aplikatzeko egin dela esan diot, eta orain arte behintzat, ez dute aplikatu.

Juan Angel Garcia Calleja ☺

Gora sokamuturra!

Sanbartolomeetako ekintzarik onenetarikoa dudarik gabe sokamuturra da. Ehunka partehartzaile, eta ikusle gehiago dituen, bai bertakoak, eta baita kanpotarrak ere. Ez da izango merkea, baina errentagarritasun handikoa, partehartzaile eta ikusleak kontuan hartzen badira. Horrela jarraitzea nahiko genuke, baina gauzak gero eta gaitzagoak ipintzen ari gara.

Obrak egiterakoan askotan ez da kontuan hartzen plaza, kale edo izkina horietan jai batzuk ere antolatzen direla, eta obrak egin ondoren ezin direla sokamuturrerako erabili. Ez litzateke gaizki egongo obrak egiteko ipintzen diren arauen artean "sokamuturrerako gune erabilgarria izatea" jartzea. Bestela, Madalan egindakoari begiratu. Orain dela urte gutxira arte joko handia ematen zuen inguru horrek: zubia, ONU aldea, parkea, Pedro Muguruza, egoitzaren ingurua... eta orain gune hori guztia galdu egin da.

Bestalde, Sokamuturra egiteko behar diren baimenak eta aseguru etxeek jarritako baldintzak gero eta zorrotzagoak dira. Ikusleak babestea derrigorrezkoa da eta ez ditugu gauzak ondo egiten zezena zirikatzen dugunean hesia hankaz gora bota arte. Hesien sistema ere aztertu behar du. Zezenen jabeek lan handia eta gogorra egiten dute, benetan harriztekoa eta txalotzekoa da, baina batzuetan pasatu egiten dira hesiak botarazten eta zezena kioskora eramaten saiatzen. Ikusleak babestutako tokietan seguru egon behar du (hesien atzetik edo kioskoan).

Horrela jarraituz gero, sokamuturra oztopatu, murriztu eta garestitu egingo da, zirkuitua motzagoa bihurtuko da, ibiltzeko eta ikusleko txarragoa izango da eta azkenik desgertuko da. Denok izango gara kaltetuak: ikusleak, partehartzaileak eta zezenen jabeak.

I.A. ☺

Ordenantza berri baten arabera, tabernek ordu bete beranduago itxi ahalko dute asteburuetan. Zer iruditzen zaizu tabernek beranduago ixtea?



Rafael Toledano
61 urte, jubilatua

Inguruko auzokideei trabarik egiten ez badie, ados nago ni. Baina badaude San Frantzisko kalean zarata ugari jasan behar izaten dutenak, eta horiengan pentsatuz gero, ez zait ondo iruditzen. Hau da, soinu eta bestelako arauak errespetatuz gero, bai; osterantzean, ez.



Carmen Martinez
52 urte, erizain laguntzailea

Ba bai; tabernek ere nonbaitetik atera beharko dute egunerokoa. Gauzak dauden moduan, bakoitzak bere aldetik ahal duguna egin behar dugu, eta tabernariei ere laga behar zaie negoziua egiten. Kaleak zaintzen diren bitartean, eta zertxobait kontrolatu, ondo iruditzen zait.



Aitor Etxaniz
37 urte, soldatzailea

Ondo, ez. San Frantzisko kalean bizi naiz, eta uste dut orain arteko ordutegiarekin nahikoa dela. Zarata handia egoten da, eta lo ere egin beharko dugu, ba! Jaietan, adibidez, ezin da besterik egin eta normala iruditzen zait, gainera, baina salbuespen modura.



Mertxe Artetxe
60 urte, administraria

Ez, ez. Uste dut nahikoa dela dagoenarekin. Elgoibarren kalean egoteko nahikoa taberna eta nahikoa ordu badaude, dagoeneko. Etxean ere egon beharko dugu, eta kaleko orduak berandutuz gero, akabo. Lehenago ere, Elgoibarren makina bat ordu pasatu dira eta tabernetan.

■ SEMAFOROA



Azkaraterako errepide zaharra oso egoera txarrean dago: "Azkaraterako errepide zaharra ez du inork zaintzen, eta oso egoera txarrean dago. Lurra erori zen, eta konpondu zuten arren, berriz erori da, eta hori ezin da horrela laga. Badakigu errepide berria egin zutenetik askoz jende gutxiago ibiltzen dela errepide zaharrean, baina Azkarate inguruko baserrietan bizi direnek asko erabiltzen dute bide hori. Ez dakigu nori dagokion errepide hori konpontzea, baina eskertuko genuke norbaitek horren ardura hartuko balu".



San Frantzisko kalean ez dago zakarrontzirik: "San Frantzisko kalean, Madala eta King-Kong artean, ez dago zakarrontzirik. Umearak ditugun gurasook zakarrontzi falta handia izaten dugu, izan ere, umeari jaten eman ondoren ez dugulako zaborrak botatzeko zakarrontzirik aurkitzen. San Frantzisko iturri inguruan daude zakarrontziak, baina hortik Plaza Handira bitartean ere oso gutxi daude. Kaleak garbi mantendu nahi baditugu, ezinbestekoa da zaborra botatzeko ontziak jartzea. Udalarari eskatzen diogu gai hau aztertu dezala. Mila esker".



Lehen Sorospenei buruzko jardunaldia antolatu du Gurutze Gorriak biharko

Erakustaldiak goizez egingo dituzte, Madalan, Leku Ederren eta Plaza Handian

Egoibarko Gurutze Gorriak Lehen Sorospenei buruzko jardunaldia antolatu du biharko, Gurutze Gorriak egiten dituen lanak ezagutzera emateko. Goizean, lehen sorospenei buruzko tailerra eskainiko dute Madalako parkean, eta edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. 12:30ak aldera koadrilen arteko borroka baten simulazioa egingo dute Nafarroa Plazan, eta zauritutako pertsonekin nola jokatu behar den erakutsiko dute. Horren ostean, ezin duek eguneroko bizimoduan dituzten oztopoak nola gainditi behar diren ikasteko gin-kana egingo dute Plaza Handian. Besteak beste, gurpildun aukiare erabilerara ikasteko zirkuitoa prestatuko dute. Azkenik, milurtekoaren garapenari buruzko erakusketa bat jarriko dute Leku Ederren, eta uraren erabilerari buruzko informazio panelak egongo dira ikusgai Giza Eskubideen parkean.



Iaz baino sei mila lagun gutxiago ibili dira Mintxetako igerilekuan

Ekainaren 12an ireki eta joan zen domekan amaitu zen Mintxetako aire libreko igerilekuen denboraldia, eta aurten-go udan aurreko bi urteetan baino jende gutxiago ibili dela adierazi dute arduradunak. Udal Kirol Patronatuak emandako datuen arabera 42.065 erabiltzaile eduki dituzte aire libreko igerilekuek, iaz baino 6.000 bat erabiltzaile gutxiago. Eguraldiak bere aurpegiak tristeena erakutsitako egunak nahi baino gehiago izan diren arren, emaitza horiekin oso gustura agertu dira Kirol Patronatuko arduradunak. Egunik jendetsuena ekainaren 11a izan zen: 1.600 erabiltzaile hurbildu ziren egun horretan Mintxetara.



Datuak urtez urte:

2011: 42.065 2010: 48.000 2009: 55.056 2008: 34.342 2007: 15.000 2006: 29.000 2005: 32.000

Down Sindromeari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Altzolan

Altzolako Zubibai elkarteak Down Sindromeari buruzko jardunaldi solidarioa antolatu du domekarako. Abrakadabra eta Atxuiamaika taldeek hainbat jolas eta magia saioak prestatu dituzte gazte zein nagusientzako, eta hori guztia, musikaz girotuta egongo da. Antolatzaileek janaria eta edaria salduko dituzte, eta lortzen den dirua Euskal Herriko Down Sindromearen elkarteari emango diote. Familia osoarentzako ekitaldia izango dela aurreratu dute Zubibai elkarteak, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte. Jardunaldia 11:00etan hasiko da Altzolako frontoian, eta 14:00ak aldera amaituko da.

Ekintza Erakusketa



Atxutxiamaikak udaldiko erretratuak eta bideoak jarri ditu ikusgai Kultur Etxean. Domekara arte egongo da zabalik erakusketa, eta udaldiko irudiak ikusteaz gain, aurtien erretratuak eta bideoak erosteko aukera ere badago. Gaur 17:00etan zabalduko dute erakusketa, eta asteburuan goizez eta arratsaldez egongo da zabalik.

Berbia Gure Balioak

Gure Balioak izeneko kanpaina jarriko du martxan Debegesak, besteak beste, lankidetzeta, ekintzailetasuna, errespetua eta integritatea bezalako balioak sustatzeko Debabarrenean. Kanpainaren aurkezpena irailaren 27an egingo dute Eibarko Unibertsitatean, eta bertan, Joan Antoni Melé, Triodos Bank-eko zuzendariorde nagusiak, banka etikoa-ri buruzko hitzaldia eskainiko du, dirua eta kontzientzia ardatz hartuta.

Horrez gain, Gure Balioak izeneko lehiaketa antolatu dute Debabarreneneko eskualdean gizarte-balioetan oinarritutako jardunbidea izan duen pertsona edo entitatea publiko-ki aitortzeko. Eskualdeko edozein herritarrek proposatu ahal izango du bere hautagaia. Hain zuzen, www.gurebalioak.com web gunean aurkitu ahal izango dira sariaren oinarriak eta hautagaia aurkezteko bete beharreko inprimakia

Irudia Tuning jaia

Espero zutena baino auto gutxiago batu ziren azkenean Altzolako tuning jaietan, baina Zubibai elkartereko antolatzaileak gustura geratu ziren ekitaldiak izandako erantzunarekin. Auto batzuk benetan ikusgarriak zirela aipatu dute, eta, tuning munduari buruzko gauza asko ikasteko aukera izan zutela gaineratu dute. Auto batzuek, bestalde, sei mila eurotik gorako musika aparatuak zituzten, eta Altzolako aparkalekuan giro bikaina jarri zuten.



Udaltzaingoak gazte bat atxilotu du lapurretan egiteagatik

Elgoibarko udaltzainek gazte bat atxilotu zuten joan den domekan, 6:00ak aldera, Usetxe inguruan aparkatuta zeuden ibilgailuetan lapurretan ari zela. Udaltzainek herritar baten deia jaso zuten, Usetxeko aparkalekuan zebiltzan gazte batzuen jarrera susmagarrien berri emanaz. Bertaratzean gazte bat ikusi zuten udaltzainek, hainbat objektuz beteriko motxila bat hartuta. Bi ibilgailuren artean irteten zen, eta gazteak aitortu zuenez, gauza haiek bi ibilgailuen barretetik ostu zituzten; horrexegatik, udaltzainek atxilotuta eraman zuten.

1976koen kinto bazkaria

1976an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute urriaren 22an, Sigma jatetxean. Interesatuek 40 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan, urriaren 7rako: 3035 0007 21 0071123055.

San Antolin jaietako zozketako irabazleak

San Antolin jaietako zozketako irabazleak agertu dira: lehenengo saria 4.510 zenbakiari tokatu zaio, eta Jose Etxeberria Agote izan da irabazlea. Kanariar Uharteetara bi lagunentzako bidaia irabazi du. Bigarren saria janariz eta edariz beteriko karretila izan da, eta Paula Herasi tokatu zaio, 4.747 errifa zenbakiarekin.



TXANKAKUAREN XI. FERIA



2011ko irailak 24, larunbata
Tokia: Foruen Plaza

Anima Zaitetz, zain gauzkazu!

TXANKAKUA Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarte



Dirulaguntza / Subvencioak:



Elgoibarko Udala
Ayuntamiento de Elgoibar

10:30etatik 14:00etara

- Produktu / zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
- Haurrentzako parke puzgarriak.
- TXU-TXU tren a herriko kaleetan zehar.
- TXANKAKUA VISA TXARTELaren stand-a. Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.
- OPARIA: Irailaren 19tik 24ra bitartean elkarteko edozein dendaran egindako erosketa-tiketa gordetzen baduzu lerosketa-tiket bezala zigilatuta egon behar da opari bat jasoko duzu plaza tiketa aurkeztean. (Opariak bukatu arte).

• Edari eta pintxoan txosna.

13:30etan

- 600 €-ren zozketa
100 euroko 6 sari erosketa baleetan.

2011-2012 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK

- Aurrez aurrekoak
 - 2, 3 edo 4 egun ostean
- Autoikaskuntza Internet bidez

IKASTARO BEREZIAK

- Espresak
- AISA (Etorriak)
- Merkatariak eta ostalaritza

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Pafelik (Administrazioa, Osoakideta, Hezibista, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urteik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

irailaren 23ra arte

DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

Informa zaitetz euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

Euskara ikasteko,
Ordutegi mugatu:
goizez, arratsaldez eta gauzez.
Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

5 ARRAZOI ON UDAL EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO

- 1 Zure seme-alabei etoko kasetan laguntzea erazatuko dize.
- 2 Komunikabideak ulertzen lagunduko dize.
- 3 Lagun berriak egingo dituz.
- 4 Lana aurkitzen lagunduko dize.
- 5 Euskaraz irakurtze eta idazten trebatuko zara.

Abantailak

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Onditegi eta erritmo mugeak.
- Kurtsua finantzatzen bekok.
- Ekintza osagarriak.



DEBARE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Haberreko Errepidea 2
20870 ELGOIBAR - Tel./Fax: 943 74 27 21
elgoi.matrik@udal.elgoibar.net

2011-2012 BASTURTA
Matrikula zabalik
www.elgoibarko.euskaltegia.com

Uztailean eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Ibai Elorza Toledo
Uztailak 15
Ibon eta Agurtzane



Maddi Irizar Alberdi
Uztailak 26
Julen eta Alaitz



Unax Ulibari Mateo
Abuztuak 18
Xabier eta Ainhoa



Irati Arzamendi Arozena
Uztailak 13
Asier eta Dorleta

Libe Soto Orozko
Uztailak 23
Daniel eta Maria

**Carmen Guerrero
Marcianes** Uztailak 13
Bruno eta Maria

**Jon eta Julen Conde
Matilla** Uztailak 6
David eta Leire

Julen Rodríguez Eugi
Uztailak 15
Iker eta Oihana

Xinyue Ana Wu
Uztailak 15
Yonghua eta Mei

Galder Ruiz Eguren
Uztailak 17
Asier eta Eider

**Noemie Tshibangu
Kilembe** Uztailak 19
Freddy eta Solange

**Ander Astigarraga
Alberdi** Uztailak 21 Jose
Ramon eta Amagoia

Julen Nova Vila
Uztailak 20
Miguel eta Elvira

Kaier Panizo Alzpurua
Uztailak 22
Mikel eta Olaia

Miruna Maria Bodriheiu
Uztailak 17
Tiberiu eta Mihaela

Alain Carrion Ollero
Uztailak 25
Javier eta Ainhoa

Saioa Etxabe Bergara
Uztailak 29
Iñaki eta Nekane

Ikhlas Aarich
Uztailak 31
Abdejalil eta Laila

Ane Agirre Barua
Abuztuak 1
Inazio eta Ikuska

**Oihan Estevez Peñagarri-
kano** Abuztuak 10
Javier eta Alazne

Mikel Etxabe Zabala
Abuztuak 10
Urtzi eta Lorea

Alex Hernandez Saenz
Abuztuak 30
Jon Imanol eta Miren

EZKONDUTAKOAK

- Alexander Fernandez eta Alaitz Apraiz Uztailak 2
- Arkaitz Olalde eta Eider Mugertza Uztailak 2
- Igor Elizburu eta Hiart Compañon Uztailak 9
- Eneko Silva eta Ines Segura Uztailak 23

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARREN**eko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

HILDAKOAK

Amaia Urkidi Iriondo • 59 urte • Uztailak 3
 Enrique Iturricastillo Azkuna • 58 urte • Uztailak 4
 Lucia Herrero Lobo • 35 urte • Uztailak 7
 Javier Unamunzaga Unamunzaga • 69 urte • Uztailak 10
 Tere Lodoso Bergaretxe • 85 urte • Uztailak 12
 Jose Andres Iriondo Urkiola • 68 urte • Uztailak 24
 Ovidio Campello Tejjido • 61 urte • Uztailak 24
 Mertxe Beristain Aldalur • 90 urte • Uztailak 24
 Alicia Iglesias Mauleon • 69 urte • Uztailak 25
 Manuel Criado Sanchez • 85 urte • Uztailak 25
 Pakita Zubiaurre Azpiazu • 74 urte • Uztailak 26
 Maria Pilar Biain Urzelai • 86 urte • Uztailak 27
 Fernando Beristain Urreta • 80 urte • Uztailak 27
 Javier Garcia Hoyas • 38 urte • Uztailak 30
 Pedro Mari Egaña Txurruka • 63 urte • Abuztuak 2
 Jose Luis Arozena Etxezarreta • 80 urte • Abuztuak 6
 Angel Gutierrez Garcia • 53 urte • Abuztuak 5
 Leire Ugarteburu Gabilondo • 30 urte • Abuztuak 18
 Anacleto Fernandez Gago • 84 urte • Abuztuak 20
 Jose Luis Belloso Ulazia • 79 urte • Abuztuak 25
 Mari Cruz Fernandez • 69 urte • Abuztuak 24
 Maria Jesus Olaiogoikoa Asuaga • 86 urte • Abuztuak 24

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

JOANES RODRIGUEZ

ESPAINIAKO ITZULIAN SUKALDARI LANETAN JARDUN DU

“Dударik gabe, Bilbokoa izan zen etaparik politena”



Espainiako Txirrindulari Itzulitik etorri berri da Joanes Rodriguez. Hiru aste eman ditu Espainian zehar, herriz herri, egu-nero bostehun bat lagunentzako jatekoa prestatzen. Nekatuta, baina aldi berean pozik etxeratu da, izan ere, esperientzia ikaragarria izan dela adierazi du. 17 urteren ondoren Espainiako Itzulia Euskal Herritik pasatu da aurten, eta Joanesek esandakoaren arabera, Bilbon aurkitu dute afiziorik onena. Giro bikaina izan zuten etapa amaieran, eta batzuek uste zutenaren kontra, ez zuten inolako arazorik izan. Kirolari dagokionean, garrantzitsua iruditzen zaio maila horretako proba bat Euskal Herritik pasatzea, baina politikoki, probokazio hutsa izan dela uste du.

Nola suertatu zitzaizun Espainiako Itzulira joateko aukera?

Nire gelakide bat zerbitzari bezala joan izan da zenbait urtetan Espainiako Itzulira, eta haren bitartez joan naiz. Enpresako arduradunek sukaldari bat behar zutela esan zioten, eta ea konfiantzazko norbait ezagutzen zuen galdetu zioten. Konfiantzazko jendea izatea garrantzitsua da, hiru asteko egonaldian haserre asko egon daitezkeelako. Ordu asko pasatzen dira elkarrekin, eta normala da haserreak egotea. Nire lagunak sukaldari bat ezagutzen zuela erantzun zuen, eta nire ize-na eman zuen. Donostian egin genuen proba, Itzulian zehar emango genuen jateko guztia prestatzeko.

“Bilbon hizlari lanak ere egin nituen euskaraz, etapa amaierako ekitaldian”

Zein zen zuen eguneroko egitekoa?

Gure taldean 19 lagun geunden, eta ni bigarren sukaldaria nintzen. Etapa irteerako jatekoa prestatzea zen gure lana; etapa amaierarako beste talde bat zegoen, baina batzuetan laguntzen genien haiei ere. Gure lana goizeko 6:00ak aldera hasten zen, eta Itzuliko langile guztiak iristen zirenerako jatekoa prest eduki behar genuen. Motoristentzako, polizientzako, muntatzaileentzako eta langileentzako ogitartekoak egiten genituen, eta horrez gain, kanapeak ere prestatzen genituen. Gutxi gorabehera bostehun ogitarteko prestatzen genituen egunero, eta kanapeak bost mila eta hamabost mila tartean.

Zuek erabakitzen zenuten menua ala norbaitek esaten zizuen zer prestatu behar zenuen?

Ni taldera iritsi nintzenerako erabakita zeukaten zein menu eskaini behar genuen. Enpresa honek 17 urte daramatza lanean, eta badakite zer egin behar duten. Ogitartekoez eta kanapeez gain, eguneko platera ere prestatzen genuen. Marmitakoa, Tolosako babarrunak eta patatak txorizoarekin jartzen genituen aukeran.

Nolako esperientzia izan da?

Sekulako esperientzia izan da. Egunero hiru mila pertsona inguru mugitzen dituen azpiegitura batek nola funtzionatzen duen ikustea sekulakoa izan da. Lan handia egin dugu, eta neketsua izan da, baina aldi berean oso aberasgarria. Egun asko eta ordu asko egin ditugu lan, eta errepidean kilometro asko. Baina giro polita geneukan gure artean eta eraman-garria izan da.

Txirindularitza zalea zara?

Gutxi. Han egonda ere Itzulia jarraitzeko aukera handirik ez dugu izan. Politena etapa amaierara joatea izaten zen. Ez gara askotan joan, baina anekdota batzuk izan ditugu. Sierra Nevada-n bukatu zen etapan ikurriñak eta Realeko banderak zabaldtu genituen podiumetik oso gertu. Catering pasearekin nahi genuen lekuraino sartzeko aukera geneukan, eta egun hartan kazetarien ondoraino sartu ginen. Ikurriñak ikustean polizia pila bat etorri ziren, eta harrিতa geratu ziren catering-ekoak ginela ikustean. Asmo txarrik ez geneukala ikusi zuten, eta mesedez banderak kentzeko eskatu ziguten, propaganda estaltzen ari ginelako. Ikurriñak eta Realeko bandera telebistan agertu zirela esan zidaten. Horrelako anekdota asko izan ditugu, jendeak beldur handia zeukalako. Aurten Euskal Herrira itzuli da Espainiako Itzulia, eta arazoak egongo zirela uste zuten askok. Azkenean ondo baino hobeto irten da dena. Bilbon gainera, hizlari lanak ere egin nituen etapa amaierako ekitaldian. Gure enpresak interes handia zeukan euskaraz egiteko lan hori, eta neuk jardun nuen gazteleraz egiten zuen hizlariaren hitzak euskaratzen. Politia izan zen.

Non aurkitu duzue afiziorik onena?

Bilbon. Dudarik gabe Bilbokoa izan zen etaparik politena. Helmugan ikusle pila bat zeuden, denak txaloka eta animoak ematen, eta, gainera, Euskalteleko Igor Antonek irabazi zuen etapa. Gure inguruko jendeak ez zuen horrelako harrerarik espero, eta askok uste zuten sabotajeak egongo zirela Bilbon. Gurekin lanean zeuden batzuei min handiagoa egin die giro ona aurkitu izanak. Euskararen kontua dela-eta izan ditugu zenbait eztabaida, izan ere, euskaraz hitz egiten genuenean inork ez zigun ulertzen, eta hori ez zaie gustatzen. Niretzako plazer bat izan da Euskal Herriaren izenean Espainiako Itzulira sukaldari lanak egitera joatea eta hemen daukagun jatekoa erakustea. Nolabait esateko

Euskal Herriko enbajadoreak izan gara, eta aurkitu dugun jendeari hemengo errealitatearen berri emateko aukera izan dugu.

Zer iruditu zaizu Espainiako Itzulia Euskal Herri-rik pasatu izana?

Egungo errealitatearekin probokazio bat iruditzen zait Espainiako Itzulia aurten etorri izana Euskal Herrira. Patxi Lopezen helburua Espainiako saskibaloitza taldea Gasteizera ekartzea eta Espainiako Itzulia Euskal Herrira ekartzea izan da, bestela ez du besterik egin. Baina kirolari begiratuta, sekulako aukera iruditzen zait txirindularitza zaletuentzat. Kritika asko egin zaizkio, eta egin behar dira, baina horiei esango nieke Espainiako Futbol Liga daukagula eta horren aurka ez duela inork ezer esaten, edota, Frantziako Tourra ere pasatu izan dela Euskal Herri-rik. Aurten izatea probokazioa da, baina kirolari dagokionean horrelako ekitaldiak Euskal Herrira ekartzea oso polita da. Hala ere, bizi dugun egoeran, horrelako kirol jarduerak Euskal Herrira ekartzea ez litzateke izan behar Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat. Horrek ez du normalizazio politikorik ekarriko. Zorionez, irudi oso ona eman dugu eta ez gara probokazio horretan erori.

“Lan handia egin dugu eta neketsua izan da, baina aldi berean oso aberasgarria”

Zer izan da gehien gustatu zaizuna? Eta guztien?

Dena ondo irten izanak harritu nau, eta gauzarik onenen artean gure arteko giroa aipatuko nuke. Pena bakarra daukat; sanbartolomeak galdu izana. Lagunek argazki eta bideo pila bat bidali dizkirate eta inbidia pasatu dut. Txiki Eguna eta Gazteen Eguna oso bereziak dira niretzat, eta ez egoteak pena eman dit. Baina beno, nik erabaki nuen aurtengo jaietan ez egotea, eta ez naiz damutzen.

Erretratu zaharra



1947

Aste honetako erretratu zaharra Ines Intxaustik ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1947. urteko erretratu da. Argazkian agertzen den mutil koadrila Arantzazura joan zen egun pasa. Lagunartean irteerak egiteko ohitura zeukaten, eta bakoitza bere bazkaria hartuta joan ziren. Gogora ditzagun erretratuan azaltzen direnen izenak: **Ezkerretik eskumara:** Vicente Elkoroiribe (†), Jose Mari Armendia, Joseba Argarate (†), Manolo Donamaria, Jose Mari Etura, Alberto Loiola (†) eta Jose Mari Barrenetxea (†).



III. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Hiru urte ez dira ezer,
baina zu gabe luze joan dira.
Beti zaude gure bihotzetan:
aita, ama eta guztiak.*

1998/10/18 - 2008/08/11

ZIGOR DIEZ

Mintxeta Atletismo taldeko kidea

Bigarren urtez, Mintxeta Atletismo taldeak Gau Krosa antolatu du asteburu honetarako. Lasterketa ez ezik baina, asteburu osorako egitaraua prestatu dute herri-tarrentzat. Juan Mugertza Krosa antolatzeko dirua bazea da helburu nagusia, baina horrekin batera, atletismoaren kontura herria girotzea ere bada antolatzaileen asmoa. Horrela azaldu dio BARRENI, antolakuntza lane-tan diharduen Zigor Diezek.

“Juan Mugertza Krosa bezala, Gau Krosa ere herriarena da”



Gau Krosa dugu hizpide, baina ez da lasterketa, astebururako eskaintza bakarra.

Ez. Barixakuan zabalduko dugu karpa, eta kontzertuak, bertsolariak, afaria... denetik egongo da. Zapatuan ere, Gau Krosa 20:00etan hasiko da, baina aurretik bada ume eta gurasoentzako beste lasterketa bat, eta gauean DJ batek berotuko du giroa.

Zer moduz joan da izen-ematea?

Ondo. Dagoeneko jende dezente eman du izena, baina azken egunera arte apuntatzeko aukera dagoenez, ezin da jakin zenbat izango garen.

Gau Krosa ez da lasterketa arrunt bat. Juan Mugertza Kroserako dirua batzea da helburua. Autofinantziazioari gogor heldu diozue.

Bai. Ezin dugu Kros guztia diru publikotik edo enpresa pribatuen dirutik finantzatu. Gure kabuz ere dirua batu beharra ikusi genuen, eta horretan dihardugu. BTT irteerako bazkaria geuk eman genuen, guardasolak ere atera ditugu serigrafiatuta... eskatuta

bakarrik ezin da dena lortu. Herriak ikusi dezala, guk ere lan egiten dugula.

Zein balorazio jaso zenuten iaz korrikalari eta herriarren partetik?

Jendea gustura geratu zen. Giro oso ona egon zen herrian, eta hori korrikalarietako eskertu egiten dute. Lasterketaren ibilbidea herrian kokatu nahi genuen; ikusleak egon zitezten eta giroa sortu zedin eta lortu genuela uste dut.

Eta aurten ibilbidea berdina al da?

Bai, antzerakoa, baina iaz 6.400 metro izan ziren eta aurten 7.700 izango dira. Tamaina egokikoa da, ez luzeegia ezta motzegia ere. Gehiegi egin gabe, zertxobait dabilenak egiteko modukoa da.

Kuriositatea pizten du izenak, baina tranpa ere badauka. Gau Krosa deitu zenioten honi, baina ez da gauzez egiten.

Bai. Marketing kutsua dauka izenak. Gaueko lasterketarik ez zegoela ikusi genuen, eta izena jarri behar genion, deigarria izanez gero hobe zela pentsatu genuen, eta horrela

bururatu zitzaigun. Gaur egun dena saldu beharra dago-eta.

Gaueko krosik ez dagoela diozu, baina ostantzean, lasterketak nabarmen ugartu dira azken urteotan. Zer iritzi duzu horren inguruan?

Pozgarria da hori guretzat. Afizioa dagoela argi dago baina hala ere, entrenatzen jende asko dabilen arren, ez dakite gehiegi atletismoaz eta ez zaie interesatzen. Futbola ikustera makina bat joaten dira, zergatik ez joan atletismoa ikustera!

Bukatzeke, zer esango zenioke oraindik izena eman edo ez, dudan dagoen horri?

Animatzeko eta parte hartzeko. Gau krosa, Juan Mugertza krosa den bezalaxe, herriarena da. Asteburu honetakoak, urtarrileko krosa handitzea eta Elgoibar kanpoan eza-gutaraztea du helburu, eta horretarako denon laguntza laguntza behar dugu. Eta benero, korrika egitea nahi ez duenari ere, korrikalariak animatzeko eta karpara gerturatzeko eskatuko nieke.

Debarrena areto futbol taldeak bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri du martxan

Denboraldirako bazkide kuotak 30 euro balio ditu

Debarrena areto futbol taldeak Bigarren B mailan jokatuko du hasieran dagoen denboraldian, eta ezinbestekoa du bazkideen laguntza. Hori dela eta, bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri dute martxan. 2011-2012 denboraldirako bazkide kuotak 30 euro balio ditu, eta horren truke, bazkide berriek hainbat opari jasoko dituzte. Bazkide bakoitzak laberako balio duten Martin Berasategiren hiru ontzi jasoko ditu. Bazkide-tza familiarra egiten dutenek, aldiz, trolley maleta bat izango dute opari. Horrez gain, bazkideek klubeko lehen taldeak etxean jokatzen dituen partidak doan ikusteko aukera izango dute bazkideek. Orain arte ez zuten kobratzen partidak ikusteagatik, baina aurtan aurrekontu bikoitza izango



du klubak (150.000 euro), eta diru-sarrerak handitzeko kobratzea erabaki dute. Bazkide-tza King-Kong kafetegian egin daiteke, edo zuzendaritzako kideekin ha-

rremanetan jarriz. Arduradunek jakinarazi dutenez, urriaren 1ean banatuko dituzte bazkide txartelak, denboraldirako lehenengo partida jokatuko den egunean, alegia.

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



ANA
"Por la hija y por mi"



AINHOA
1. perfila



JOSEBA
2. perfila



SONIA
"My native language is English, but since I live here, I want to learn Basque"



ALBERTO
*3. perfila
EGA*

Matrikula erdia eta bekak udalari esker • Izena eman 28a arte.

Plaza Txikia, 3 • Tel.: 607 601 423 • elgoibar@aek.org

Maite Maiora mendarorarrak Sorginen Lasterketa irabazi du

Gotzon Zulaika eta Iñaki Etxabek ere hartu zuten parte

Sorginen Lasterketa mendi proba jokatu zuten joan zen domekan Urkiolako Parke Naturelean, eta nesketan, Maite Maiora mendarorarrak irabazi zuen proba. 2 ordu, 22 minutu eta 53 segundo behar izan zituen korrikalari mendarorarrak, 25 kilometroko ibilbidea egiteko, eta helmugan ia sei minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari. Aipatzekoa da, bestalde, sailkapen nagusiko 31. postuan sailkatu zela Maiora. Lehen postu horri esker, gainera, mendi lasterketen Munduko Koparako 100 puntu eskuratu zituen. Datorren domekan jokatuko du Maiorak Munduko Kopako azken mendi lasterketa Italiako Lecce probintzian. Maiorekin batera, beste bi ordezkari hartu zuten parte lasterketan: Gotzon Zulaika mendarorarrak bederatzigarren egin zuen 2:14:06 denborarekin, eta Iñaki Etxabek 2:57:09 denbora behar izan zuen proba amaitzeko.

Edu Uribe Tor de Geants proban

Edu Uribe, bestalde, Italiako Tor de Geants proban parte hartzen ari da, Aosta bailaran. Proba honen gogortasunaz



jabetzeko zifra eta datuei erreparatu besterik ez dago: 330 kilometroko ibilbidea, 24.000 metroko desnibela goraka, proba amaitzeko 150 orduko epea. Aurten, bigarren edizioan, bostehun lagunek hartu zuten irteera Courmayeurren joan zen domekan, eta horien artean zegoen Edu Uribe. Domekan amaituko da proba bukatzeko epea.

80 neska-mutil Sanlo eskubaloi eskolan



10 eta 11 urteko 80 neska-mutilek hasi dute denboraldia Sanlo eskubaloi eskolan. Ikastolan egin zuten entrenamendua joan zen asteburuan, lau taldetan banatuta. Hurrengo entrenamendua bihar egingo dute, 10:00etan hasita.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zalla 2 – Haundi 1 (3. maila)

Elgoibar 0 – Real Union 2 (Erreg.)

Elgoibar 1 – Aurrera Ondarroa 0 (Ohorezko jub.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

10:30 Elgoibar – Eibar (Ohorezko inf.)

12:30 Elgoibar – Arrasate B (Kad. B)

17:00 Haundi – Cultural Durango (3. maila)

PILOTA

Barbakua, 16

Lagunak – Zestoa (2. mailako kad.)

Lagunak – Hernani (2. mailako jub.)

Lagunak – Zestoa (2. mailako nag.)

Tenis eta padel ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak

40-15 elkarteak antolatuta, urriaren 3an hasiko dira tenis ikastaroak, Mintxetako pistan. Astean bi orduko saioak eskainiko dituzte, adin eta maila desberdinetako jendearentzako. Urriaren 4tik aurrera, bestalde, hogeitau orduko padel ikastaroa hasiko da, eta kasu honetan ere, astean bi orduko saioak eskainiko dituzte. Antolatzailleek esan dutenez, iaz baino jende gehiago espero dute ikastaroretan, beraz, izenematea lehen bailehen egiteko eskatu dute. Interesatuak Olaizaga kiroldagian eman dezakete izena.

Aralarrera irteera antolatu du Morkaikok irailaren 25erako

Morkaiko mendizale elkarteak Aralarrera irteera antolatu du hilaren 25erako. Guardetxetik hasita Illarrazura egingo dute ibilaldia. 25 kilometroko ibilbidea izango da, eta antolatzailleek zazpi ordutan egitea aurreikusiko dute. Bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte (26 urtetik beherakoek eta langabetuek, bost euro), eta gainerakoek, hamar euro. Interesatuak Morkaikoren egoitzan eman dezakete izena.

Andoni Egañak eta Julio Sotok girotuko dute Aiastiako bertso afaria

Txartelak erosteko epea hilaren 26an amaituko da

Irailaren 30ean ospatuko dute Gazteen Eguna, Aiastiako San Migel jaien barruan. Triki bertso kalejira egongo da lehenik Arantza eta Ekaitz trikitalariekin, eta ondoren, Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin afaria egingo dute. Menua ondorengo izango da: Entsalada mistoa, bakailaoa tomate saltsa, txuleta eta tarta izozkiarekin. Afarirako txartelak 35 euro balio ditu, eta interesatuek irailaren 26ra arteko epea dute txartelak erosteko. Armueta, Ziarda, Sahatsu eta Arrizabalaga harategietan erosi daitezke txartelak.



Kiribilka egitasmoa irailaren 23an hasiko da

Elgoibarko Izarrako arduradunek jakinarazi dutenez, astebetetz atzeratuko da Kiribilka egitasmoaren hasiera. Hortaz, gaur hastekoak ziren ikasturte berriko saioekin, baina datorren barixakuan hasiko dira, 17:30ean, Plaza Handian.

Hilekoari buruzko tailerra antolatu dute hilaren 24rako

Berdintasun Sailak hilekoari buruzko tailerra antolatu du irailaren 24rako. Hilekoa eta honen inguruan sorturiko praktiken hausnarketarako gonbidapen bat da tailerra. Hala, hilekoaren inguruan eztabaidatzeko espazio bat sortu nahi da saio hauekin. Era berean, odola kudeatzeko praktika desberdinak ezagutzeko aukera eskainiko dute. Izena emateko epea irailaren 22an amaituko da. Interesatuek udaletxeko Berdintasun Sailera jo dezakete.

Informazio buletina jarri du abian Gazte Informazio Guneak



Gazte Informazio Guneak informazio buletina jarri du abian, eta buletin elektronikora harpidetzen diren lehen 150 gazteek USB memoria bat jasoko dute opari. Informazio buletina harpidedun diren gazteei posta elektronikora astero bidaltzen zaien aldizkari elektronikoa da. Harpidetza egiteko bi modu daude: Gazte informazio zerbitzuaren bulegora jotzea (Elgoibarko Udala, Foruen Plaza z/g, 2. solairua) edo <http://www.gipuzkoangazte.info/buletinharpidetza.asp> estekan sartzea.

ESKERTZA

MARIA PILAR BIAIN URCELAY

“Arreba Klaratarra”

eta

MARIA JESUS ALAIOGOIKOA ASUAGA

“Arreba Kontsolazio Klaratarra”



2011ko uztailearen 26an hil zen,
86 urte zituela



2011ko abuztuaren 23an hil zen,
86 urte zituela

Klaratarrek bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

60 lagun inguru batu ziren Gaztetxean Xare ensembleak eskainitako kontzertu klasikoaz gozatzeko

Goi mailako hamahiru musikarik osatzen dute Xare ensemblea

Joan zen ostegunean, irailaren 8an, Elgoibarko Gaztetxea auditorio bihurtu zen, izan ere, Elgoibarko Gazte Asanbladak kontzertu klasiko bat antolatu zuen. Xare ensembleak musika klasikoaz eta garaikidez jantzi zuen Gaztetxea, eta 60 bat musikazale bildu ziren kontzertuaz gozatzeko.

Musikari gazte profesionalak eta goi-mailako ikasketak burutzen ari diren hamahiru musikarik osatzen dute Xare ensemblea, denak ere Donostiako Musike-ne goi mailako musika ikastegian elkar ezagututakoak. Txaber Fernandezek zuzendaritzapeko talde hau urtean behin elkartzen da astebeteko topaketa bat egin, hainbat obra prestatu eta kontzertu batzuk eskaintzeko. Aurten, Gasteizko katedral zaharra eta Elgoibarko Gazte-



txea aukeratu dituzte emanaldiak emateko. Gazte Asanbladaren ekimen honek musika klasikoa bere ohiko eszenatokitik atera eta elgoibartarrei gerturatzea izan du helburu, eta izandako arrakasta ikusita, ekitaldi gehiago antolatuko dituztela

aurreratu dute antolatzaileek. Bertaratu-tako musikazaleek eta ensemblearen zuzendariak berak Gaztetxearen akustika ona nabarmendu zuten, eta musikariak datorren urtean itzultzeko gogoz geratu zirela azaldu zuten.

Arantxa Ferreirok hirugarren egin zuen Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan



Zarautzen hasi da aurtengo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa, eta Arantxa Ferreiro dantzari elgoibartarrak hirugarren egin zuen estreinako kanporaketa horretan. Ane Espilla bosgarren lekuan sailkatu zen, Iraitz Gonzalez zortzigarrena izan zen eta Itziar Aldalur bederatzigarrena. Mutiletan Aitor Asenjo izan zen Elgoibarko ordezkari bakarra, eta laugarren postuan sailkatu zen.

Altzariak berritzeko eta birziklatzeko tailerra

Eskuz arte eskolak antolatuta, urriaren 4an hasiko da altzariak berritzeko eta birziklatzeko tailerra. Astearte eta ostegunetan eskainiko dituzte eskolak, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 615 764 337 (Nieves) edo 678 840 451 (Mertxe).

Pintura eta eskulan tailerrak, Mendaron

Urriaren hasiko dira pintura eta eskulan tailerrak Mendaron, eta ekainean amaituko dira. Pintura tailerrak astelehenetan eskainiko dituzte, eta eskulanak martitzene-tan. Ikastaroak 150 euro balio ditu. Interesatuak irailaren 23ra arte eman dezakete izena 943 033 282 telefonora deituta edo kultura@mendaro.net helbidera idatziz.

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Magisteritza eta EGA tituludun neska Lehen Hezkuntzako klase partikularak emateko prest. (Euskara, gaztelania, ingelesa...). ☎ **659 024 427**
- Alemaniera klaseak ematen ditut, haur eta helduentzako. ☎ **647 275 374**
- Neska euskaldun lizentziatua umeak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest. Irakaskuntzan, begirale eta umezain lanetan esperientzia handia. ☎ **697 322 306 / 943 531 579 (Enara)**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Gizonezkoa lanerako prest. ☎ **685 212 060**

ESKAINZA

- Malape tabernarako zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. ☎ **686 771 339**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdigunean. ☎ **696 944 813 / 626 752 558**
- Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal izanez gero, hiru logelatakoa. ☎ **671 289 584**

- Bi logela alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua, sukaldea eta erroa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**

SALMENTA

- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**

BESTELAKOAK

- McLaren markako umeentzako auto tolesgarria salgai. Egoera ezinhobean. 60 euro. ☎ **678 386 033**
- Uztalean belarritako bat aurkitu nuen hilerrian. ☎ **651 706 756**



I. URTEURRENA

VICENTE KORTABARRIA KORTABARRIA

2010ko irailaren 18an.

*“Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.”*

Familia





IMHrako lan poltsa: INCRSESeko Zuzendaria

(Giza baliabideetan diharduen IMHren
negozio unitateko arduraduna)

Betekizunak / informazio gehiago: www.imh.es










Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Matrikulazio epea zabalik
irailaren 19tik 30era

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



• Zorionak, **Iratitxo**, abuztuaren 17an zure eguna izan zelako. Zazpi muxu potolo aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, amatxu Nekane eta **Mikell** Muxu asko familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ihintza**, seigarren urtebetetzean. Bihotz bihotzez Aiora, Asier eta etxeko denen partez.



• Zorionak, **Eneritz**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoaren partez.



• Zorionak, **Nora**, abuztuaren 10 urte egin zenituelako. Etxekoaren partez.



• Zorionak, **Udane**, eta muxu handi bat zure bosgarren urtebetetzean, etxekoaren eta bereziki, Goiatzen partez.



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 8an 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• **June** maitea, oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Patxo asko, bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Markel**, agaur 5 urte egin dituzulako. Patxo handi bat etxekoaren eta, bereziki, Endikaren partetik.



• Zorionak, **Nora**, 5 urte egin dituzulako. Irgandean ospatuko dogu denok.



• Zorionak, **Julen**, 4 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Maria**, uztailearen 20an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Elenaren partez.



• Zorionak, **Ihart**, 2 urte egin dituzulako. Muxu bat etxekoaren, eta bereziki, Oier eta Julenaren partez.



• Zorionak, **Maddi**, hilaren 13an 7 urte bete zenituelako. Muxu asko etxekoaren partez.



• Zorionak, **Erik**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu asko etxekoaren partez.



• Zorionak, **bikotel** Iritsi da zuen eguna! Ondo pasa! Koadrilakoaren partez.



• Zorionak, **bikotel** Iritsi da zuen eguna! Ondo pasa! Koadrilakoaren partez.



• Zorionak, **Nahia eta Jon**, 5 urte egin dituzuelako. Familiakoaren, eta bereziki, Uxue eta Saioren partez.



• Zorionak, **Olatz!** Muxu handiak 6 urteko neska handiarentzat. Ondo pasa asteartean.



• Zorionak, **Maddalen eta Ane**, irailean 7 urte bete dituzuelako. Txokomarrubizko muxu goxo goxoak familiakoaren eta laguntxo guztien partez.



• San Bartolomeren bendizian zaiñ zeundeten eta aillau jatzue ordua. Bixar danok zuekin ospatuko dogu. Zorionak, bikote! Elgoibarko lagunak.



• Azkenik iritsi da horrenbeste amestutako eguna! Besarkada handi bat zuen lagunaren partez!



• Zorionak, **Maite eta Fernando**, zuen ezkontza egunean. Oso ondo pasa dezazuela biharko eguna. Familiakoaren partez.



• Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen ezkontza egunean. Koadrilakoak.



• Zorionak, **bikote**, zuen ezkontzagatik. Askota maite zaituztegu zuen familiakoek.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

16 barixakua

Atletismoaren jaia

19:00 Karparen irekiera

Leku Eder parkean.

19:30 Kontzertua

MP5 taldearekin.

21:00 Afaria

Sahieskia, patatak, entsalada, flana eta kafea. 11 euro.

(Edaria aparte).

22:30 Bertso saioa

Ondoren, kontzertua

MP5 taldearekin.

17 zapatua

Txapelketa

8:00 Lehen sorospen

jardunaldia

Gurutze Gorriak antolatuta, Leku Ederren, Madalan, Giza Eskubideen parkean, eta Plaza Txikian.

Atletismoaren jaia

18:30 Hour krosa

Umeen eta gurasoen lasterketa.

20:00 Gau krosa

Plaza Handian.

21:15 Afaria

Sahieskia, patatak, entsalada, flana eta kafea. 11 euro. (Edaria aparte). Korrikalariak bi euroko deskontua izango dute.

23:00 Musika

DJ Iban Burgaña.

18 domeka

Jaialdia

11:00 Down Sindromea duten

umeen aldeko eguna

Zubibaik antolatuta, Altzolako frontoian.

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian. Zuzendaria, Gorka Mujika.

1. *Autumn leaves* (J. Kosma).

2. *La tabernera del puerto*.

Fantasia. (P. Sorozabal).

3. *Nessun Dorma* (G. Puccini)

4. *The magnificent seven* (E.

Bernstein).

5. *Into the storm*. Selektzioa.

(R.W. Smith).

OKINDEGIA

18 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

- 16 Ibañez
- 17 Garitaonandia-Bidasolo
- 18 Garitaonandia-Bidasolo
- 19 Etxeberria (Santa Ana)
- 20 Fernandez
- 21 Yudego
- 22 Zabaleta
- 23 Etxeberria (Errosario)

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9

(Soraluze)
Tel: 943 751 384



Irailaren 23an, 16:30ean

**herri kirolak,
merendola eta disko
festa ludotekan,
5 eta 12 urte bitarteko
herriko haur
guztientzat.**



Irailaren 24arako

irteera berezia antolatu dugu, 1999an jaiotako-entzatzat. **Lasergunera joango gara, Bilbora.**
Eman izena
Gaztelekuan irailaren 22a baino lehen!

ZINEA ONGARRI ZINE-KLUBA

«Media noche en Paris»

17, zapatua: 19:00/20:00

18, domeka: 19:00

19, astelehena: 21:30



«Cirkus Columbia»

22, eguena: 21:30

23, barixakua: 22:15

**Zure semeak
ondo ikusten
duen seguru
zaude?**

FEDEROPTICOS
IKUS-en ikusmen azterketak egiten ditugu, begi alferria, desbideratzea edo ikusmen txarra antzemateko, eta era berean, ikasketa arazo posibleak eragozteko.

FEDEROPTICOS IKUS

Jose de Artetxe kalea, 10
Tel: 943 157 574 - AZPETTIA

San Bartolome kalea, 10
Tel: 943 743 734 - ELGOIBAR





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach lo-reak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio taile-rrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea. Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaro:
Astelehen eta asteazkenetan:
15:00-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi
(Esku-terapiak: kiropraxia, dra-natzaille linfatikoa, osteopatia, ki-rol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", le-hiaketa bendajea).
San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia
Jausoro, 6 behea.
Fisioterapia eta osteopatia.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. erreabilitazio zentroa

(Partikularrei eta seguruen bi-
dezko tratamenduak). Fisiote-
rapia, kirol-fisioterapia, mesote-
rapia, elektroakupuntura, laser
terapia, kinesio taping eta osteo-
patia.
San Inazio, 2
Tel.: 943 743 374
Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriza
San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktolo-
gia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale
Errosario Kalea, 7 behea
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza,
5 behea.
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta
ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta
telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00



2011ko SAN MIGEL JAIK

ELGOIBARKO AIASTIA AUZOAN

IRAILAK 24 - Larunbata

- Egurdiko 13:00etan: **Kanpai jotzea** jaien hasiera adieraziz.
- Arratsaldeko 17:00etan: **San Migeleko XI. ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA** Euskal Herriko arraza libreko finala.

ARTZAINA

CARLOS PINEDO
FELIX IRIGOYEN
PELLO SEGUROLA
JOSE ANTONIO ARRIBLAGA
PELLO PAGADIZABAL
INAXIO ETXEBERRIA
JOSE RAMON ORBEGOZO

HERRIA

ANDAGOIA
AMAIUR
MATXINBENTA
ELGOIBAR
AIA
AZPETIA
AIZANZAZU
1. BIZKAIA
2. BIZKAIA

- Gaueko 22:30ean: **Borja Uzuriagaren oroimenez Haritz EDTaren Ekitaldia.**
- Ondoren: **Erromeria "eMe Pebo 5t" taldearekin.**
- 01:00ak aldera: **BOLO TXAPELKETA SARIAK:**
 1. Motoserra
 2. 70 euro
 3. 50 euro
 4. 25 euro
 5. 15 euro
 6. UstekabeaLehenengo auzotarrantzako garaikurra.

IRAILAK 25 - Igandea

- Goizeko 11:30ean: **Meza.**
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIK trikitilariak.**
- Arratsaldeko 17:00etan: **IDI DEMAK**
SOARTE (Elgoibar)
ISIDRO ERRETEGIA (Azkoitia)
BASABE (Aizarnazabal)
 - **SARIAK:**
 1. 900 euro, garaikurra eta mantak
 2. 800 euro eta garaikurra
 3. 700 euro eta garaikurra
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIKIN erromeria**

IRAILAK 29 - Osteguna "SAN MIGEL EGUNA"

- Goizeko 11:30ean: **Meza.**
- Ondoren: **ZIARDA eta MAÑU bertsolariak**
- Egurdiko 13:00etan: **Pilota Partida ARRIBLAGA - KEPA LIZARRALDE - TXURRUKA**
- Ondoren: **Trikitilariak ELUSTONDO anai-arrebekin**
- Gaueko 20:30ean: **AUZOTARREN AFARIA**
- Ondoren: **ELUSTONDO anai-arrebekin erromeria**

IRAILAK 30 - Ostirala "GAZTEEN EGUNA"

- 20:00etan: **TRIKI BERTSO KALEJIRA, Ekaitz, Arantza, Andoni Egaña eta Julio Soto.**
- 21:00etan: **TRIKI BERTSO AFARIA**
- Ondoren: **DISKO FESTA**

URRIAK 2 - Igandea

- Goizeko 11:15ean: **Meza.**
- 12:00etan: **SAN MIGELERA V. IGOERA KORRIKA**



elgoibar
bizi-bizial

OHARRA:

Aparkalekua egongo da.
Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharrez jabetuko.

Laguntzaileak:

Beristain Logistika, Katei, Unzue Pentsuak,
Auto-servicio Arrizabalaga, Kalamua Elkarte, Haritz EDT.

Belaustegi Baserría  **JATETXEA**
Josu Mugertza
Sukaldaritza

San Migel Gaine (Alto de San Migel)
20670 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 74 31 02 • Fax: 943 74 38 41
www.belaustegi.com

EGVR LVR
VENTA Y REPARACIÓN



Karmen Plaza, 21 behe • Tel.: 94 616 76 32
46270 MARKINA - XEMEIN - Bizkaia



Erakuntza Garbiketa
eta Lorazaintzako Makinaria

Pl. Clasa. Cr. Clasope 14
20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 74 06 86
Fax: 943 74 25 90
arribal@arribal.com
www.arribal.com

ITUARTE
PENTSUAK, S.L.

Kareaga Industrialdea, Pab. 6, Sub. 1
Tel.: 94 616 87 48 • Fax: 94 616 91 24
46270 MARKINA - XEMEIN - Bizkaia